

Kolonia digitala gara



DIANA FRANCO

Askotan pentsatu eta hitz egin dut kolonialismo digitalaren inguruan. Alegia, herri gehienek duten eredu digitala ez dela eratorri duten mundu ikuskeraren bilakaeratik. Baina aurreko astean, Euskarabildua topaketetara gerturatu nintzen, eta Cristina Caffarra Eurostack proiektuko bultzatzaile eta lehiakortasun ekonomikoan adituak adierazi zuenean kolonia digitala garela, nire buruan eztanda txikia izan nuen. Zertan nenbilen ni, kolonialismo digitala prozesu bezala pentsatzen, jada kolonia digitala garen garaian? Bat-batean, kolonia izateagatik ustiaketa eta zapalkuntza pairatu duten herri asko etorri zitzaizkidan burura. Historian zehar zapalkuntzari loturiko azpiegituren eraldaketak sekuentzia azkar gisa ikusi nituen Cristina Caffarra entzuten nuen bitartean, baita gaur egungo azpiegiturak ere: kolonizatzaileetara konektatzen gaituzten ozeano azpiko kableak etorri zitzaizkidan burura, sateliteak, zerbitzariak...

Gizakion gizarteetan bestearen zapalkuntza ez den garapen eta bizimodu onerako biderik ez gara sortzeko gai izango inoiz? Modu eta teknologia ezberdinekin, baina beti berdina errepikatuzera kondenaturik bizi behar ote dugu? Familia dut Mexikon, eta hemen askok ospatzen eta goraipatzen duten kolonialismoak suminez betetzen du hango askoren arima. Gauzak beste modu batera egiteko gai ez ginen izan... Gaur ere ez gara izango?

Munduan ezagutza partekatzea baliatuko duen azpiegitura izatea ideia ederra iruditzen zait, gure mundu ikuskerak modu naturalean "kutsatuko" direla ere ulertzen dut, eta bilakaera interesgarriak ekar ditzakeela. Baina gauza bat da besteengatik ikastea, eta bestea, agentzia gabeko kolonia bilakatzea. Agentzia gabeko kolonia bat garen honetan, gure ahotsak gure gizartearen bilakaeran izango duen pisua txikitzen doa. Teknologia bolumena igotzen laguntzen dien ahots ozenengatik estalia. ●



EFE

Etsipena klimaren goi bileraren atarian

Lulak petrolioia ustiatzea erabaki du Amazonas ibai-aho inguruan

EKAIN CARRASCO TELLAETXE

Astlehenean abiatu da klimaren COP30 nazioarteko goi bilera, Brasilgo Belém hirian, baina etsipena dario. Hasi aurretik dagoeneko hautsak harrotu dira Brasilen bertan. Izan ere, Lularen gobernuak kudeatzen duen Ingurumen Institutuak (IBAMA) Amazonas ibai-ahotik gertu petrolio putzu bat zulatzeko baimena eman dio Petrobras enpresari. Lula da klimaren aldaketaren aurkako borrokaen aurpegietako bat, baina neurri berriarekin bere zilegitasuna ezbaian jarri du agintariak. Estatuko enpresarik handiena den Petrobrasen eta gobernu federalaren arabera, petrolio-ekoizpenak sortuko ditu energia-trantsizioa finantzatzeko behar diren diru-sarrerak.

Bileraren atarian, Lulak hainbat mandatarari bildu ditu eta adierazi die "kontraesanak gorabehera, planifikatutako bide bat" behar dutela, "deforestazioa lehengoratzeko eta erregai fosilekiko mendekotasuna gainditzeko". Hala ere, Amazonas inguruan petrolioia ustiatzeko erabakiak goi bileran hartu daitezkeen erabakiak galgarazi ditzakeela uste du Suely Araújo Klimaren Behatokiko Politika Publikoen koordinatzaile eta IBAMako presidente ohiak, *elDiario*-ri emandako elkarrizketan: "Petrolioari buruzko eztabaiden sabotaje moduko bat da. Egun batzuk itxaron zitezkeen konferentzian eraginik izan ez zezan".

Araújok gaineratu du Brasilek ez duela "petrolio gehiago ustiatu behar. Ekoizpenaren erdiarekin, barne-kontsumoa hornituko luke. Esportatzeari utzi beharko lioke".

"Justifikazio gisa, gobernuak eta Petrobras 'segurtasun energetikoaren' narritiba faltsua erabiltzen ari dira, eta gainera 'aukera-leihoak dela' diote munduko petrolio-eskariak behera egin aurretik. Argudio horri heldu diote leku askotan hau bezalako proiektuak justifikatzeko eta bizkortzeko, nahiz eta jakina den faltsua dela, petrolioaren kontsumoak goia jo eta 2030ean behera egitea aurreikusten baita", dio Brasilgo Arayara Ingurumen Institutuko zuzendari Juliana Bueno de Araujok.

Gobernu barruan ere iritzi kontrajarrak agertu dira. Marina Silva Ingurumen ministroa eta Herri Indigenen ministro Sônia Guajajara kontra azaldu dira eta Guilherme Boulos Presidentetzako Idazkaritza Nagusiko ministroaren alderdiak, PSOLk, lege-proiektua aurkeztu du Kongresuan, Ekuatore ertzean petrolio ustiatzea debekatzeko.

Luena Karipuna, Oiapoque eskualdeko buruzagi indigenak ere proiektuari gobernuak emandako babesa gaitzetsi du. Kalteak jasango dituen inguruneke buruzagietako bat da eta salatu du inork ez diela abisurik eman, herri indigenekiko utzikeria bistaratuz. ●